




Lectura fácil

Zer egin Zentroan parte hartzeko



**Dibertsitate funtzionala duten pertsonen
Arretarako Zentroen Oinarrizko Estatutua**



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



© Lectura fácil Europa
Logo: Inclusion Europe
Más información en:
www.easy-to-read.eu

Araba, 2021

“Dibertsitate funtzionala dutenentzako Arabako Lurralde Historikoko eguneko Egoitza Arretako Zentroen eta Zentro Okupazionalen Oinarrizko Estatutua “ren IV. tituluaren (Antolaketa eta funtzionamendu egitura) eta V. tituluaren (Banaka parte hartzeko bideak) egokitzapena erraz irakurtzeko, irakurketa errazari buruzko UNE 153101:2018 EX arauarekin bat etorriz.

Argitaratzailea:

Arabako Foru Aldundia

Erraz irakurtzeko egokitzapena:

Irene Vera de la Fuente

Egokitzapenaren balidatzaileak:

Saray Guaza Chamorro

Gregorio Cintas Jiménez

Óscar Pueyo González

Testuaren diseinua Irene Vera de la Fuenteren diseinuan oinarritzen da

Aurkibidea

Aurkezpena.....	4
Zentroaren antolamendua	6
Nola hartzen duten parte erabiltzaileek zentroan.....	7
Bakarka parte hartzea	7
Taldeka parte hartzea.....	9
Parte hartzeko batzordea.....	10
– Zer egiten du batzorde honek?	10
– Nor aritzen da batzordean?	12
– Noiz biltzen da batzordea?	16
– Nola hasten dira batzordearen bilerak?	17
Batzar Orokorra	18
– Zer egiten du Batzar Orokorrak?.....	18
– Nor aritzen da Batzar Orokorrean?	19
– Noiz biltzen da Batzarra?.....	19
– Nola hasten dira Batzarraren bilerak?	21
Legeak	22

Aurkezpena

Arabako Foru Aldundia Arabako gobernu organoa da.

Aldundiak idatzi du **Dibertsitate funtzionala** dutenentzako Arabako Lurralde Historikoko Arretako Zentroak arautzen dituen Oinarrizko **estatutua**.

Zentroen estatutuaren helburuak honako hauek dira:

- **Zentroak** erabiltzen dituzten pertsonen eta haietan ari diren profesionalen eskubideen eta betebeharren berri ematea.
- Azaltzea nola antolatu behar diren zentroak.

Arabako Foru Aldundik erraz irakurtzeko moduko 5 gida prestatu ditu estatutu hau azaltzeko

Estatutua

dokumentu ofiziala da, esaten duena nola antolatu behar den zerbitzu edo zentroa eta nola behar duten bertakoek. Hemendik aurrera Zentroen Estatutua esango diogu.

Dibertsitate funtzionala

desgaitasuna esateko beste modu bat da.

Hemendik aurrera **Zentroak** aipatzen direnean, dibertsitate funtzionala duten pertsonen arretarako eguneko zentroeiz, zentro okupazionaliez eta egoitza zentroeiz ariko gara

Hona:

- 1. gida: Zentro motak eta beren balioak.
- 2. gida: Erabiltzaileen eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak.
- 3.gida: Zer egin zentro batean apuntatzeko.
- 4.gida: Zer egin zentroan parte hartzeko.
- 5.gida: Parte hartzeko Batzorderako Hauteskundeak.

Hau 4. gida da:

Zentroaren antolamenduan
eta jardunean parte hartzeko
zer egin behar den
azaltzen da.

Zentroaren antolamendua

Zentro guztiek

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak

adierazten dituen legeak

bete behar dituzte.

Gainera, zentro pribatuetan

haien ardura duen entitatearen **arauak**

errespetatu behar dira.

Zentroaren zuzendariaren

ardura da bertako jarduna ona,

legeriaren

araberakoa, izatea.

Gizarte

Ongizaterako

Foru Erakundeak

Arabako Foru

Aldundiaren

organikoa;

mendekotasuna

edo dibertsitate

funtzionala duten

pertsonentzako

zerbitzuak

kudeatzen ditu

Araua esparru jakin

bateko legea da.

Esate baterako,

zentroko arauak

Nola hartzen duten parte erabiltzaileek Zentroan

Erabiltzaileek parte har dezakete, eragiten dieten zentroko erabakietan.

Hori zuzenean egin dezakete, behar duten laguntzarekin, edo zeharka, izendatutako pertsona baten bitartez.

Gainera, **bakarka** zein **taldeka** har dezakete parte.

Bakarka parte hartzea

Bakarka parte hartu nahi duenak bere **erreferentiazko** profesionalarekin hitz egin dezake **Banakako Arreta Planari** buruz, zerbait proposatzeko edo kexa bat aurkezteko.

Bakarka parte hartzea da norberak bere kabuz erabakitzea eta jardutea.

Taldeka parte hartuz gero, zenbait erabiltzailek bat egiten dute helburu bat lortzeko.

Erreferentziazko pertsona esaten zaio erabiltzaileak zailtasun baten aurrean edo laguntza behar duenean lehenbizi hitz egin behar duen pertsonari.

Banakako arreta plana norberaren bizi proiektua eta hori lortzeko helburuak zehazten dituen dokumentua da.

Honako aukera hauek daude profesionalarekin hitz egiteko:

- Mezua bidali posta elektronikoz.
- Telefonoz deitu.
- Bilera eskatu.
- Egoera berezietan edo larrialdietan, hitzordurik eskatu gabe hitz egin daiteke erreferentziazko profesionalarekin.

Erreferentziazko profesionalak ez ba du ematen behar den erantzuna, zentroko zuzendariarekin, hitz egin daiteke.

Zuzendariak

ere ez badu asetzen erabiltzailearen nahia,

Erabiltzaileen Arretarako

Unitatera jo behar da.

Horretarako, erreferentziazko profesionalari **formularioak** eskatu behar zaizkio eta, behar izanez gero, betetzen laguntzeko ere bai.

Gero berak bidaliko ditu formularioak Erabiltzaileen Arretarako Unitatera.

Erabiltzaileen

Arretarako

Unitatea Gizarte

Ongizaterako Foru

Erakundearen

zerbitzua da.

Zerbitzu honek

jaramon egiten

die dibertsitate

funtzionala

duten pertsonen

arretarako zentroen

erabiltzaileen kexei

eta erreklamazioei.

Formularioa

kudeaketa baterako

(kexa bat aurkeztea

edo zentroan

apuntatzea)

erabiltzen den

dokumentua da.

Taldeka parte hartzea

Taldeka parte hartu nahi duena zentroko bizitza hobetu nahian lan egiten duten erabiltzaile taldeetan sar daiteke.

Hona hemen:

- Parte hartzeko **batzordea**.
- **Batzar** Orokorra.
- Zentroko jarduerari eta eguneroko bizimoduari buruz hitz egiteko eta **Eztabaidatzeko** taldetxoak.

Zentroan 14 plaza baino gehiago ez badaude, parte hartzeko beste modu batzuk sor ditzake, baina bermatu behar du erabiltzaile guztiak dutela parte hartzeko eskubidea.

Batzordea

erabiltzaileak eta profesionalak biltzen diren lan taldea da; zentroko bizitza hobetzeko erabakiak hartzen ditu.

Batzarra erabiltzaile

eta profesional guztiak zentroari eragiten dioten gai garrantzitsuak aztertzeko biltzen diren esparrua da.

Eztabaida da iritzi

desberdineko pertsona batzuk hizketan aritzea gai jakin baten inguruan.

Parte hartzeko batzordea

Zer egiten du batzorde honek?

- Zentroaren eta erabiltzaileen arteko harremanak aztertzen ditu, horien beharrianen ta bizi proiektuen berri edukitzeko.
- Erabiltzaileek zentroko bizitzan eta erabakiak hartzeko prozeduran parte hartzea sustatzen du.
- Lantaldeak sortzen ditu egoera eta gai jakinak aztertzeko.
- Erabiltzaileek batzordean dituzten ordezkarien hautaskundeak antolatzen ditu.
- Zentroak zerbitzua hobetzeko abian jarri nahi dituen jarduerak eta ekintzak aztertzen ditu.

Hemendik aurrera **batzordea** aipatzen denean, parte hartzeko batzordeaz ariko gara.

- Zentroaren arautegia prestatzen du, hau da, bete beharreko arau guztiak biltzen dituen dokumentu ofiziala.

Zentroen arautegiak

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak onartu behar ditu.

- Urteko jardueren plana onesten du eta hura ongi gauzatzeko behar den guztia egiten du.
- Urtean behin **Batzarrari** azaltzen dio zer egin duen.
- Zuzendariarekin eta profesionalekin lankidetzan jarduten du zentroaren helburuak lortzeko.

Hemendik aurrera **Batzarra** aipatzen denean, Batzar Orokorraz ariko gara.

Nor aritzen da batzordean?

Batzordean

honako hauek aritzen dira:

1. Batzordeburua.

Erabiltzailea izaten da.

Batzordeko
agintari gorena da;
bera eta zuzendaria
Zentroaren ordezkariak dira.

Zuzendariak
batzarraren eta batzordearen
bilerak iragartzen ditu
eta **eguneko aztergaien zerrenda**
prestatzen du.

Zentroko zuzendariak
Batzordearentzat eta erabiltzaileentzat
garrantzitsua den informazioa
ematen dio
batzordeburuari.

**Eguneko
aztergaien
zerrenda** bilera
batean aztertuko
diren gaien
zerrenda da.
Bileraren hasieran
irakurtzen da.

2. Idazkaria.

Zentroko zuzendaria
edo profesionaletako bat izaten da.

Eztabaidak **moderatzen** ditu
eta bileren aktak egiten ditu.

Batzarraren eta Batzordearen
kudeaketak antolatzen ditu.

Batzordearen liburuak, dokumentuak
eta gutunak ondo gordeta
eta zainduta egotea bermatzen du.

3. Batzordekideak

Bi motatakoak dira:
berezkoak eta hautetsiak.
Banan-banan azalduko ditugu.

Berezko batzordekideak
profesionalak dira;
zentroaren ordezkariak dira.

Moderatzea

da eztabaida
antolatzea eta hitz
egiteko txandak
errespetaraztea.

Akta bileran

gertatutako
guztia azaltze den
dokumentua da.
Adibidez: zenbat
pertsonek bildu
diren, zer gai
aztertu den.

Gutxienez
honako hiru pertsonak
izan behar dira:
zuzendaria,
talde teknikoko
profesional bat
eta **zuzeneko arretako**
profesional bat.

Batzordekide hautetsiak
erabiltzaileek hautatzen dituzten
beren ordezkariak dira.

Batzordekide hautetsiek
Batzordeburua hautatzen dute;
erabiltzailea
izan behar da.

Batzordekide guztiek,
berezkoek zein hautetsiek,
honako egiteko hauek dituzte:

- Batzordearen eta Batzarraren bileretan
aztertu beharreko gaiak
proposatzea.
- Lan batzordean parte hartzea.
- Eztabaidetan parte hartzea
eta erabakiak bozkatzea.

Talde teknikoan
aritzen diren
profesionalek
erabakiak hartzen
dituzte zentroaren
jardunaz eta
erabiltzaileen arretaz.
Zuzendaria ez da
talde honetan aritzen.
Honako hauek izaten
dira, besteak beste:
psikologoa eta
pedagogoa.

Zuzeneko arretako
taldean eguneroko
bizimoduan laguntzen
duten profesionalak
aritzen dira (dutxan
laguntzen dutenak,
esate baterako).

Batzordeak honako arau hauek bete behar ditu:

- Batzordean erabiltzaileak profesionalak baino gehiago izan behar dira beti.
- Batzordekideen guztirako kopurua bakoitia izan behar da.
- Batzordekideek ez dute jasoko dirurik ez oparirik batzordean aritzeagatik.
- Batzordeak profesionalak gonbidatu ditzake bileretan gai jakinei buruzko hitz egiteko. Profesional horiek ezin izango dute bozkatu eta ezin izango dute eman batzordearen erabakien gaineko iritzirik.
- Parte hartzeko batzordeak bi urte iraun dezake gehienez. Bi urte igaro ondoren hauteskundeak egin behar dira batzordekide berriak izandetzeko.
- Ahaleginak egin behar dira emakumeen kopurua eta gizonen kopurua antzekoak izateko.

Noiz biltzen da batzordea?

Batzordeak **ohiko** bilera egin behar du 6 hilean behin, gutxienez.

Horrez gainera, **ezohiko (Aparteko)** bilerak egin daitezke honako kasu hauetan:

- Batzordeburuak eskatzen duenean.
- Zentroko zuzendariak eskatzen duenean
- Idatziz eskatzen dutenean batzordekideen **erdiak eta bat gehiagok**.

Batzordeak gutxienez 48 ordu lehenago iragarri behar ditu bilerak. Bilera deialdietan honako informazio hau eman behar da:

- Bilera non eta noiz (eguna eta ordua) egingo den.
- Bileran zer aztertuko den (gaiak).

Ohiko bilera egun berean egiten da beti. **Aparteko** bilera gai jakin bat aztertu behar denean egiten da.

Erdiak eta bat gehiago; adibidea: Batzordean 12 pertsona badaude, erdiak 6 dira. Beraz, ezohiko bilera gutxienez 7 pertsonak eskatu behar dute.

Nola hasten dira batzordearen bilerak?

Bilera hasteko

honako urrats hauek egin behar dira:

1. Batzordekideen erdiak eta bat gehiago egon behar dira gutxienez.
2. Kopuru horretara iritsi ezean, bilera ordu, erdi atzeratuko da.
3. Ordu erdi pasatutakoan batzordekideen erdiak eta bat gehiago egonez gero, bilera hasiko da.

Batzordearen erabakiak

batzordekideen botoen bidez

onesten dira.

Erabaki bat onesteko

ezinbestekoa da

batzordekideen erdiek eta bat gehiagok

aldeko bota ematea.

Batzar Orokorra

Zer egiten du Batzar Orokorrak?

- Erabiltzaileen eskubideak eta interesak defendatzen ditu.
- Zentroaren jarduna egokia denez egiaztatzen du.
- Erabiltzaileen arreta eta bizi kalitatea hobetzeko jarduerak antolatzen ditu.

Adibidez: **hezkuntzako hitzaldiak**, zentroa sartu berri diren pertsonen ahaideei laguntzeko taldeak, etab.

- Zuzendariari Zentroko bizitza hobetzeko proposamenak aurkezten dizkio.

Hitzaldia gai bati buruzko ekitaldia da: aditu batek hitz egiten du eta beste batzuek esaten duena entzuten dute.

Nor aritzen da Batzar Orokorrean?

Batzarrean

zentroko erabiltzaile guztiak aritzen dira,
zuzenean zein zeharka.

Horiez gainera, batzordekide hautetsiak ere
aritzen dira.

Gainera,
erabiltzaileen ahaideak edo hurkoak er
izan daitezke bileretan

Noiz biltzen da Batzarra?

Batzarrak ohiko bilera
urtean behin egiten du, gutxienez.

Horrez gainera,
ezohiko bilerak egin daitezke
honako kasu hauetan:

- Batzarrak eskatzen duenean.
- Batzordeak eskatzen duenean.
- Zentroko erabiltzaileen ehuneko 25k
eskatzen duenean.

Hau da,
lau erabiltzaileko batek.

Halakoetan,
bilera eskatzen duten pertsonak
zergatik egin behar den
zehaztu behar dute.

Batzarrak gutxienez 7 egun lehenago
iragarri behar ditu bilerak.

Bilera deialdietan

honako informazio hau eman behar da:

- Bilera ohikoa
edo ezohikoa den.
- Bilera non eta noiz
(eguna eta ordua) egiten den.
- Bileran
zer aztertuko den (gaiak).

Batzarrak iragarkien oholean ipini behar du
Informazioa eta gutunez
edo posta elektronikoz bidali behar du

Nola hasten dira Batzarraren bilerak?

Bilerak hasteko

honako urrats hauek egin behar dira:

1. Gutxienez erabiltzaileen erdiak bertaratu behar dira.
2. Kopuru horretara iritsi ezean, bilera ordu erdi atzeratuko da.
3. Ordu erdi pasatutakoan bilera hasiko da, erabiltzaileen erdiak egon zein ez egon.

Idazkariak

bileraren akta egingo du

eta kopia bat ipiniko du

Zentroko iragarkien oholean.

Legeak

Atak honetan
gida honekin lotutako
lege nagusiak ageri dira.

Ez dago legeok zertan irakurri
gida ulertzeko;
gainera, ez dira erraz ulertzeko modukoak.
Nolanahi ere,
informazio gehiago nahi izanez gero,
begiratu daitezke.

Espainia:

- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, ezintasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoa:

- 36/2014 Foru Dekretua, Diputatuen Kontseiluarena, uztailaren 22koa, mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasatako arriskua aitortzeko prozedura arautzen duena, bai eta, baldintza horiek betez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere.
- 64/2004 Foru Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren agiria eta iradokizun eta kexen araubidea onetsi dituena.
- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, gizarte Zerbitzuen.

